



Sociedad | Educación

«Bikaintasunean, eta ez elitismoan» oinarritutako unibertsitate publikoa aldarri



33.000 ikaslek baino gehiagok hasi dute ikasturtea EHU. Gehienak emakumeak dira / IGNACIO PEREZ

Unibertsitate publiko bikaina eta ez-elitista da EHUK jomuga izango duena, Nekane Balluerka errektoreak adierazi duenez. Horretarako, unibertsitatearentzako finantzabide «egonkorra eta nahikoa» eskatu du

Martes, 11 septiembre 2018, 11:44

0

Ikasturte berriari hasiera emateko ekitaldian, Nekane Balluerka Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak eskatu du finantzabide «egonkorra eta nahikoa» ezartzeko, horrela «bikaintasunean, eta ez elitismoan» oinarritutako unibertsitate publikoa sortu ahal izateko.

Zeremonia horretan izan dira, baita ere Euskal Herriko Unibertsitateko Areto Nagusian, Bizkaiko Campusean, Iñigo Urkullu lehendakaria; Eusko Legebiltzarreko presidente Bakartxo Tejeria; Bizkaiko ahalzun nagusi Unai Rementeria, Hezkuntza sailburu Cristina Uriarte, Lan eta Justiziako sailburu Maria Jesús San José, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburu Beatriz Artolazabal, Bizkaiko Batzar Nagusietako presidente Ana Otadui,

Gipuzkoako Batzar Nagusietako presidente Eider Mendoza eta Manuel Lezertua arartekoa. Halaber, bizitza akademikoaren, euskal gizartearen eta Legebiltzarreko partidu guztien hainbat ordezkari bertaratu dira.

Balluerkak bere mintzaldian azpimarratu ditu, bestalde, Euskal Herriko Unibertsitateak ikasturte berrian zain izango dituen **erronka nagusiak**. Batez ere, bikaintasunaren aldeko hautu garbia egin du: «Unibertsitate publiko bat ezin daiteke elitista izan, eta, hortaz, ezin du oztoporik jarri bere sarbide sisteman, edo gaitasun intelektualaz bestelako eskakizun irizpiderik erabili».

«Unibertsitate publiko bat izan daiteke, eta izan behar da bikaintasuna gidari duen unibertsitatea, egunetik egunera hobe izaten lehiatuko dena arlo profesional, intelektual eta instituzionalean, eta pertsona bakoitzari ahalegin eta prestasunik handiena eskaini eta eskatuko diona, helburu profesionalak lortzeko lanean eta besteenganako zerbitzuan».

Era berean, errektoreak azpimarratu du orain ontzen ari den **unibertsitate planak** UPV/EHuren etorkizunerako izango duen garrantzia. Hori dela eta, eskatu du euskal unibertsitatearen «helburuak betetzeko eta kalitatea hobetzeko adinakoa den finantzabide eredu bat», baina gaineratu du UPV/EHUK hori eskatzen duela «ardura partekatua ikuspegitik. Izan ere, unibertsitatea ez da baliabideak eskatzera mugatu behar; bere eginkizuna ere hartu behar du bere gain, bi helbururen bidez: lehenik, bere baliabideak sortzea; eta bigarrenik, legez esleitzen zaizkion baliabideak ahalik eta modurik eraginkorrean erabiltzea».

Ikerketaren garrantzia

Hitzaldian errektoreak nabarmendu du, halaber, ikerketak daukan garrantzia UPV/EHuren unibertsitate eredurako, eta 2019-22 aldirako diseinaturiko Ikerketa Planaren berri eman du. Beste plan batzuei ere ekingo die, hala nola **Eleaniztasun Planari**, Euskararen III. Plan Gidariari eta Garapen Jasangarrirako Plan Estrategikoari.

Hala berean, unibertsitateak **lan eskaintza publikoak abiaraziko** ditu bai administrazio eta zerbitzuetako langileentzat eta bai irakasle-ikertzaileentzat. Arlo akademiko hutsari dagokionez, ikasketa berriak ezartzeko asmoa dago: gradu bikoitzak, masterrak, doktorego programak eta prestakuntza dualeko ibilbideak.

Gainera, ikasturte berri honetan lanari ekingo dio **Jarduera Fisikoa Ikertzeko Gune berriak**. Gasteizko Udalak lagatako espazio bat da, eta bertan hainbat ikertalde aztertuko dituzte jarduera fisikoak herritarren osasunean dituen eraginak. Bestalde, **HiTZ** erreferentzia gune berria jarriko da abian Donostian, IXA Taldeak proposatutako Hizkuntza Teknologiako Zentroa.

Ikasleen gehiengoa andrazkoak dira

Graduko 33.000 ikaslek baino gehiagok hasi dute ikasturtea EHU. Eskainitako **86 graduetan 8.300 ikasle berri** matrikulatu dira. Emakumeak dira %55 eta gizonezkoak, %45. Hizkuntzari dagokionez, horietariko %52 euskarazko taldeetan matrikulatu dira, eta %48, gaztelerazkoetan.

Campusen arabera aztertzen baditugu **ikasle berrien datuak**, Bizkaiko Campusean matrikulatu dira %55,25; Gipuzkoakoan %24,84; eta Arabakoan, %19,91. Arloen arabera sailkatuta, %44 Gizarte eta Lege Zientzietan matrikulatu dira; %22,3, Ingeniaritza eta Arkitekturan; %15,4, Osasun Zientzietan; %10 Arteak eta Giza Zientzietan; eta %8,3 Zientzien adarrean.

Fisikako eta Ingeniaritza Elektronikoko **Gradu Bikoitzak** du aurtengo gutxieneko notarik altuena: 13,01. Atzetik du Biokimika eta Biologia Molekularra (12,534); Medikuntza (12,332); Fisika (12,147) eta Bioteknologia (12,032). Bestalde, 11tik gorako gutxieneko notak dituzte Odontologiako, Fisioterapiak, Matematikak eta Erizaintzak graduek, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Zuzenbideko Gradu Bikoitzak, Ingeniaritza Mekanikoko eta Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritzako Gradu Bikoitzak.

TEMAS Euskera

La mejor selección de noticias en tu mail

Recibe las principales noticias, análisis e historias apuntándote a nuestras newsletters

Apúntate

Lo + leído

El Diario Vasco

Educación

Top 50

- 1 **Los errores más comunes que cometes a diario en la educación de tu hijo**
- 2 **Itziar Alkorta sustituye a Carmen Agoués como directora de los Cursos de Verano de la UPV/EHU**
- 3 **Convocada una huelga en los comedores escolares de la red pública el próximo día 26**
- 4 **ELA critica los cambios en el proceso de las próximas OPE**
- 5 **Iron Man y Buzz Lightyear contra el acoso escolar**



- 71%	- 46%
2018 primavera ot...	BENZELOR 2018 pr...
€24,07	€25,34
- 26%	
Nuevo 2018 veran...	1 unid Gadget tritu...
€15,84	€0,75
	- 6%
2019 las nuevas m...	Soon€
€21,63	€



0 Comentarios

Patrocinada

LALIGA



Mujeres con el escudo de su equipo tatuado en el pecho

Noticias relacionadas

Aholkularitza gastro-
teknologikoan oinarritutako
proiektua sortu dute

Zinegoak hasi aurretik,
zenbait jarduera prestatu
dituzte aste honetarako

'Roma', inspirazio amaigabea

CONTENIDO PATROCINADO

Enlaces Patrocinados por Taboola

Ganga para Guipúzcoa : vuelos baratos desde 14€ ida y vuelta

www.jetcost.es

Juega esto durante 1 minuto y verás por qué todos son adictos

Vikings: Juego en Linea Gratis

El seguro de coche más completo y al mejor precio

Mutua Madrileña

MÁS NOTICIAS


por Taboola

Pablo Ibar: Lágrimas y rabia entre los familiares

Uno de los detenidos en el pabellón lleno de marihuana de Zumaia iba armado

Los mosquitos que propagan graves enfermedades aterrizan en Euskadi

Fotos




Las mascotas visten sus mejores galas



Famosos tal como eran



Pingüinos latinoamericanos



El mayor show canino

Videos



La Comisión 8-M caliente motores para la huelga feminista



Franco y Sánchez, protagonistas en Exposición del Ninot



Liberadas 2 mujeres colombianas y detenidas 13 personas en Guipúzcoa



Uno de cada cuatro niños vivirá en pobreza en 2030

© Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.Domicilio social en Camino de Portuebe, 2 San Sebastián 20018



Contactar | Aviso legal | Política de privacidad | Publicidad | Mapa web | Política de cookies